



MARTXOAK 8ko XXV. Kartel Lehiaketa (2022)

2022. urteko Martxoak 8ko kartel lehiaketaren arauak:

- 1.- Lehiaketa honetan edozein pertsonak hartu dezake parte.
- 2.- Aurkeztu beharreko kartelen neurriak 50x70 zentimetrokoak izango dira. Inprimatuta eta euskarri digitalean aurkeztu beharko dira lanak.
- 3.- Teknika librea izango da.
- 4.- Kartelek derrigorrean testu hau izan beharko dute:

“Feminismoa denon kontua da”.

bell hooks

Lemaz gain, kartelak **“MARTXOAK 8”** testua ere izan beharko du.

Aurtengo edizioaren goiburua liburu honetan oinarritu da: «Feminismoa denon kontua da: politika pasio», bell hooks-ena» (Feminism is for Everybody: Passionate Politics '. (2000).

Bel hooks 2021eko abenduan hil zen, eta lehiaketaren edizio honetan aitortu gura dugu mundu guztiarentzako feminismoaren alde zer lan eta borroka egin zuen.

Idazle eta aktibista estatubatuarrak hainbat gai lantzen ditu liburu honetan: hezkuntza, sororitatea, ugalketa eskubideak, klase borrokak, arrazakeria, maitasuna eta sexua besteak beste. Gai horien lanketatik abiatuta eta arraza, klasea eta sexuaren aurrean norberaren posizioa aztertu eta gero, mundu guztia feminismoarekin bat egitera gonbidatzen du.

Izan ere, aktibistak idatzi bezala, "Ausardia izan behar dugu iraganetik ikasteko eta printzipio feministak gure bizitzako eremu publiko eta pribatu guztietan nagusi izango diren etorkizunaren alde lan egiteko".

- 5.- Irabazleak 450 euroko saria jasoko du (sariak PFEZ-ren atxikipena izango du).
- 6.- Egoki iritzi gero, aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa bat egin dezake Udalak.
- 7.- Egilearen nortasuna azaldu gabe eta atzealdean lema bat duela aurkeztu behar dira lanak. Horrekin batera, kartazal itxi batean lema bera eta egilearen datuak adieraziko dira.
- 8.- Lanak Arrasateko BAZera (Arano-Gartzia maisu maistra kalea 8, 20.500 Arrasate-Gipuzkoa) eraman (edo bidali) behar dira. Lanak aurkezteko azken eguna, otsailak 14, astelehena, 14:00ak baino lehen.



9.- Saritu gabe gertatzen diren lanak, erakusketaren azkeneko egunetik hasi eta hogeita hamar eguneko epean jaso ahal izango dira. Epea amaitu ondoren, egileek lanak jaso ez badituzte, aintzakotzat hartzen ez dituztela pentsatuko du Udalak eta horietaz libreki baliatu ahal izango du, eta ez da onartuko erreklamatzeko edo kalte-ordaintzeko eskubiderik.

10.- Saritzen den lana Udalaren esku gelditzen da. Kaleratzeko eskubidea izango du. Udalak jendaurreko komunikaziorako, kopiatzeko eta banatzeko eskubideak ere eskuratuko ditu; eskubide horiek Udalarenak baino ez dira izango.

11.- Epaimahaia osatuko dute Arrasateko udaleko berdintasun teknikariek eta Arrasateko mugimendu feministako kideak.

12.-Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

13.- Lehiaketa honetan parte hartuz gero, esan gura du arau hauek onartzen direla.

Arrasateko Udaleko Berdintasun saila

Tel:
943 79 41 39 / 618 206 233 (Emakume Txokoa)
943 25 20 00 (BAZ)

emakumetxokoa@arrasate.eus
www.arrasate.eus